

ttipi-ttapa

1992.eko Abenduak 24

100. zenbakia

dohain banatzen da



100. alea



ZALAIN MOTOR



Bortzirietarako FORD SERBITZU BERRIA



93 FORD Modelo berriak ezagutzera etor zaitez

Marka guzietarako serbitzu osoa

● *Mekanika*

● *Karrozeria*

● *Elektrizitatea*

● *Gurpilak*

ZALAIN - BERA Tfnoa: 631157

1992ko azaroak 22 - ARGIA eguna Euskal Herri osoan

ARGIA

KIROLA ESTIATEKO BERSERA
MONTAÑAREN GORRISAN

GIZARTEA
NATURAREN GORRISAN
EZIN IRITEN

KULTURA O SAIOI AKO
ETA ITZALAK

PERTSONAIK

ESKER GAIZTOKO
UNIBERTSITATEAN

PUNTAKO
INFORMAZIOA
ASTERO

GABRIEL ARESTI: «ITZALA EMAN NAHI DUENAK ARGIA HARTU BEHAR DU»

EUSKAL HERRI OSORAKO

euskara hutsean egiten den astekari bakarra

MEÑDE BATEKO TESTIGANTZA

Aldaketa politiko eta kultural guztien ispilu

LERRO INDEPENDIENTEA

Informazio bizia, zabala, zorrotza eta zaindua

IRAKURLE UGARI

CIES enpresaren arabera, 40.000 irakurletik gora

ARGIAREN HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT
(48 Ale eta urtekaria)

IZEN DEITURAK

HELBIDEA

Tel

HERRIA

HERRIALDEA

K.P.

BANKU EDO

AURREZKI KUTXA

SUKURTSALA

SUK. Zenbakia

KONTUAREN

ZENBAKIA

Harpidetza sariak: Hego Euskal Herria:

10.300 pzt. / Ipar Euskal Herria: 685 libera /

Estatu espainiarra: 10.300 pzt. /

Beste alzerriak: 13.450 pzt. / Airez: 21.300

ARGIA, Industrialdea 1 eta 2 pabilioiak 20160 LASARTE-ORIA

non - zer

-
- 4** **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7** **HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8** **IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/27** **HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 28** **KIROLAK:** Jose Bikondoak 9,65 metrotan jarri zuen munduko aizkora errekorra alturan.
-
- 30** **MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 5.300 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Juana Mari, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernu...

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa / Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428 / 637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino
erresidentzia109400

Gurutze Gorria.....226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

Elizondo580924

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzarar515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka.....637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

Botikak

Abenduaren 24-25ean, Lesaka, Doneztebe eta F. Iturralde (Elizondo).

Abenduaren 26-27an, Arantza, Narbarte eta F. Elizalde (Elizondo).

Abenduaren 31-urtarrilaren 1ean, Etxalar, Ituren eta F. Iturralde (Elizondo).

Urtarrilaren 2-3an, Bera, Sunbilla eta F. Elizalde (Elizondo).

Urtarrilaren 5-6an, Lesaka, Narbarte eta F. Iturralde (Elizondo).

Urtarrilaren 9-10ean, Arantza, Doneztebe eta F. Iturralde (Elizondo).

Deialdiak

ELIZONDO
EVEREST
Abenduaren 29an, arratsaldeko 8etan, Baztandarren Biltzarren bideo emanaldia eta hitzaldia.

Hizlaria: Pitxi Egileor.

Bertsoak

ZUBIETA
Urtarrilaren 5ean, Sebastian Lizaso eta Millan Telleria.

Dantzaldiak

LESAKA
Abenduaren 25ean, *JOSELU ANAIK*.

Abenduaren 27an, *INGUMA* taldearekin.


Urtarrilaren 3an, *EGAN* taldearekin.

Urtarrilaren 6an, *JATOR* taldearekin.

Ikastaroak

ELIZONDO
Abenduaren 29, 30 eta urtarrilaren 2, 4 eta 5ean, Baztandarren Biltzarren lokalean *ZANKO eta TXALAPAR-TA* ikastaroak, arratsaldeko 6etan.

Bota bertsoa



Aitor AROZENA

Gaia: ttipi-ttaparen 100.n alea
Doinua: Peñagarikanoren doinu berria

Hamaika urtez lanean fuerte bultzatu nahian euskera ordutik hona atera dezu etxe xokotik kalera bide berriak urra dituzu ijitok karron antzera Sara, Leitza edo Bera herri batetik bertzera (bis) eskualdeko prentsa onena ttipi-ttapa zu bait zera mila zorion ailetzogatik zerotikan ehunera (bis).

Ehun aletan izandu zera hemengo herrien ahotsa euskara errex ta bertakoan inolaz ere arrotza bi astetik behin gure etxera etortzean hori poza Joxe ta Pilin ezkontza Euxtakitoren jaiotza (bis) herri ttikitan pasatakoa ez da astoan gorotza horrexegatik aunitz urtetan izan gure altaboza (bis).

AGENDA

Zinema

► ELIZONDO

Abenduaren 25ean, 7,30etan "Hook-Garfio kapitaina". Abenduaren 27an, 7,30etan "The fisher king- Errege arrantzalea". Urtarrilaren 1ean "Bugsy". Urtarrilaren 6an "La familia Adams". Eguberriko kulturaldiaren barnean.

► DONEZTEBE

Abenduaren 25ean, "Hook". Abenduaren 26-27an, "No me mientas que te creo". Urtarrilaren 1ean "Beethoven". Urtarrilaren 2-3an "Los últimos días del Edén". Urtarrilaren 6an "Regreso al lago azul".

► LEITZA

Abenduaren 27an 5-8etan "Un horizonte muy lejano". Urtarrilaren 3an 5-8etan, "No me mientas que te creo". 6an 5-8etan "Batman vuelve". 8an 10,30etan "Sin perdón", 10ean 5etan, "Mi chica".

Gastronomia

ARETZE KOSTILLAK LABEAN

Osagaiak

4 lagunendako:

1'5 kg. kostilla, 2 porru, azenario 1, olioa, gatza, ura, ardo xuria, patata, 2 piper berde, tipula, baratzuria eta perrexila.

Aluminiozko bandeja baten olio pixkat paratu, bere gainean kostilla gatzare-



Josetxo Arburuak emana - IGANTZIKO BILTOKI

kin eta honen gainetik porru eta azenario puxka-

tuak. Labe berora sartu ordu t'erdiz. Erdizka prejitutako piperra eta tipula gehitu, kostillari barazkiak eta saltsa kenduz.

Bertze zartagi batean saltsa prestatu ardoa eta baratzuriarekin eta kostillari bota, patatekin batera. Bertze ordu erdi batez temperatura bajuagoan mantendu, ateri eta ongi xehetutako perrexila bota gainetik.

Baserriko feria



► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 4.860 pzta. **Zerri gizona** (95-100):141 pzta/kilo **Zerramak**: 80-90 pzta./kilo bizirik.

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....525
1.koa.....500
2.koa.....480

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra.....535
1.koa.....510
2.koa.....480
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 340 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 390 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 15.000 eta idixkoak 22.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 23.000 eta idixkoak 33.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.
FUNERARIA ZERBITZUA

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...



Eila Alzugarai
4 urteko lesakarra

- ▶ Ikastola ala oporrak? Oporrak.
- ▶ Negua ala uda? Uda.
- ▶ Olentzero ala erregeak? Erregeak.
- ▶ Ikastolan, lana ala errekreoa? Lana.
- ▶ Komedorea ala etxean bazkaltzea? Komedorea.
- ▶ Olentzeroari zer eskatu behar diozu? Bideo-juego.
- ▶ Puzzleak ala panpinak? Puzzleak.
- ▶ Telebista ala zinea? Zinea.
- ▶ Txotxongiloak ala pailasoak? Pailasoak.
- ▶ Plazan dantzatzea ala jostatzea? Dantzatzea.
- ▶ Zer kanta da gehien gustatzen zai-zuna? Pintto pintto.

«Hertzainak» taldeari agur

«Denboraren orratzak» azken diska berriki aurkeztu dute

«Hertzainak» taldea Euskal Herriko "rock erradikala" etiketarekin ezagutu zen mugimenduaren gurasoetariko bat desagertzera doa. Duela bizpahiru urte zurrumurrua izan zena gaur egun errealitate bihurtu da. Atzean gelditu da hamar urteko lana eta bizia. Gehienon bizian bezala, gogor, indartsu eta "letxe txarreko" gaztetasunetik ("Pakean utzi arte", "Si vis pacem parabellum" gogoratu) zahartzaroko gozotasun eta jakintza-



Josu, Gari, Txanpi eta Kike: betirako gure belarrian geldituko den «Hertzainak» taldearen partaideak

sunarena pasa dira ("Aitormena" edo "Denboraren orratzak", metxeroak piztuarazten dituzten balada ederrak dira). Beraien pentsakerakin bat, kantu internazionalistak ere ez dira

faltatzen eta "Guantanamo" eta "Yanqui kanpora" aski adituak izan dira udan honetan. Hamar diskotan isladatutako bizia.

Halere, agurraren zamintasuna arindu nahian, "Denbora-

ren orratzak" izeneko diska aurkeztu zuten Durangoko azokan eta hainbat kontzertu ematen ari dira Euskal Herrian zehar. Beraz, oraintxe duzu aditzeko azken aukera.

AITOR

❖ Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz!

BERA
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55

BERA

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA



LIBURU BILDUMEN BANATZAILEA
IKASTOLA, ESKOLA, ELKARTE ETA
KULTUR ETXEETAKO
LIBURUTEGIAK OSATZEKO
BEHAR DIREN BILDUMAK

AMETS LIBURUAK

☎ 63 12 67 - BERA



Lurra izeneko erakusketa eta Kultur Astea burutu zen Abenduaren 17tik 23ra Urruña eta Askainen, bertako Hazia eta Altxa Lili elkarteek antolatuta. Aste osoan zehar egindako ekitaldietara hainbat beratar ere agertu zen, parte hartzeko asmoarekin.



Infernuko-Errota Baztan eta Etxalarren arteko mugan Infernuko-errekan aspaldiko urtetan egondako errota ederra lurrera erori da urteen poderioz.

Xabi URMENETA Arg.

Arkupeak elkarteak bazkari batekin bukatuko du urtea

Abenduaren 29an, Almandotzko Beolan eta Doneztebeko Santamarian bilduko dira



«Arkupeak» eskualdeko Jubilatu eta Pentsionisten elkarteak abenduaren 27rako Almandotzko Beola eta Doneztebeko Santamaria jatetxeetan antolatu duen bazkariekin agurtuko du urtea.

Bazkarien ondoren, dantzaldia izanen omen dute Bordatxo dantzalekuan.

Aipatu behar da, bazkari eta afarietaz gain,

hainbat ekitaldi antolatu dituela aurtengoan Arkupeak elkarteak, bertzeak bertze, estatutik eta estatutik kanpoko bidaiak, jaialdiak, ekitaldiak.... Halere, ekitaldirik hunkigarriena 85 urtetik 90 urte arteko berrehun lagunetik goitiri maiatzaren 30ean egindako omenaldia izan zen.

Gure partetik urte ona izan dezatela.

INFORMAZIOA:

- ✍ Nominak
- ✍ Aseguro Sozialak
- ✍ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✍ Enpresa berrien sortzea
- ✍ Diru-laguntzak
- ✍ Errenta Deklarazioak
- ✍ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non:** MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



ABERTZALEAK BETI EUSKALDUN

A b e n d u a r e n 10ean *ttipi-ttapa* aldizkarian agertutako idatziari buruz, Lesakako EAJ-PNVren Uri Buru Batzarreko lehendakari gisa, hurrengo esan nahi nuke:

1.- EAJ-PNVren "Batzoki" informazio-boletina jaso duela eta horretaz gain irakurria izanasko poztu gaitu.

2.- Kritika berez onartzen dugu, arrazoi guztia duela onartzen bait dugu.

"Batzoki" aldizkaria gaztelaniaz izatearen arrazoi bakarra, arazo teknikoak direla adierazi nahi dugu. Halere, argitu, arazo hau konpontzeko lanetan aritu garela eta denbora gutxi barru boletina bi hizkuntzetan argitaratzeko asmoa dugula.

Ez da, "iñola ere", ideologi edo pentsakera arrazoiengatik (argi dago), ezta ere Euskera, berak merezi duen garrantziaz ez tratatzeagaitik. Guztiz aurkakoa, euskera edo beste edozein herritako

hizkuntza nortasun ezaugarri garrantzitsuena da, eta are gehiago, ezaugarri hori desagertzen denean, herria ere desagertzen da.

Beraz, euskal giroan jaioak izan gara, hobetzen bizi gara eta gure eskuetan dagoen guztia egingo dugu, gure Euskal Herrian euskarak dagokion lekua lortu dezan.

3.- Azkenik eta amaitzeko, argi utzi nahi dugu, abertzaleak garenez, inoiz ez dugula euskera inorren aurka "arma arrojadiza" bezala

erabiliko eta uste dugu, egiten dutenak (egin, sarritan egiten dute), gure hizkuntzari gutxi asko laguntzen diotela. Edo eta J.L. jauna (15.070.765). Euskara hitzegin arren beste asko baino abertzaleagoa sentitzen ohi da?

Abertzale izatea, eguneroko lanaren bitartez eta euskal gizarteko beharrak hobetzen saiatzen den neurrian irabazten da. Beraz, pertsona honi hasertu erazi gabe esan nahi nioke:

"Ondokoaren begikobelar idor puxka hainbeste ez begiratu, eta norberaren enborra gehiago zaindu behar da".



Lesakako EAJko
Lehendakaria
NAN: 72.659.611

GAIA

BIDASOAKO BELAR ETA DIETETIKA DENDA BERPIZTEN DA. URTE BERRI, BIZI BERRI.

Mediku naturista hagitz konpletoa, euskaldun jatorra Arantzan eta Prican kontsulta pasatzen duena, jende aunitzen atseginerako.

Orain hemen bertan, zuengandik burbil.

Edozein arazo konpontzeko prest.

Konfiantzazko barreman goxoz.

Rafael Artola Azpeitia

► IRIDILOGIA

► Pisuaren KONTROLA

► AKUPUNTURA

► MASAJETERAPEUTIKOA

► REFLEXOTERAPIA

► QUIROPRAKIA

Osasuna, biziaren ondasunik ederrena ez da bizitzea bakarrik, ongi bizitzea baizik. Hemen gaude laguntzeko.

Urtarrilak 13, lehen kontsulta: deitu goizeko 10etatik 1etara **637410**ra.

GAIA, BITTIRIA 6 (Batzoki aurrean) - LESAKA

URTE BERRI ON ETA OSASUNTSUA IGARO

Euskadiko Sokatira Txapelketa urtarrilaren 10ean burutuko da Eztegarara pilotalekuan

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Euskal Herri osoko 18 talde lehiatuko dira datorren hilabetearen 10ean Eztegarara pilotalekuan burutuko den Txapelketan. Goizeko 10-10,30ak aldera hasiko den saioan, mutilak 640 kilotan ariko dira eta neskak 520 kilotan. Euskal Herriko sokatira talderik hoberenak lanean ikusteko aukera bikaina, beraz.

Asistentzia handia

Hilabete honen 14, 15 eta 16an Bortziritako herri guzietatik etorriak, jende aunitz ibili da Bortziritako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak antolatutako hitzaldietan parte hartzen. Bertan, Bera Kultur Etxean alegia, adinekoen osasuna eta denbora librearen inguruan mintzatu zaizkie hiru egunetan zehar gai hoietaz dakiten lau sikologo.



Adinekoen osasun eta denbora libreari buruzko hitzaldietan jende aunitz ibili da. Argazkia: KARMELE



Olentzeroak, Urtezahar gaueko bestak, erregeak... eguberrietako erritual guziaz martxan dago. Argazkia: GOIKO

W ttipi-flash

□ **Futbol** zelai berriaren gestioa eta mantentzea Gure Txokoa Elkartearen esku uztea erabaki du udalbatzak bere azken sesioan. Momentuz urte baterako zeditu zaio eta epe hori luzagarria da.

□ Irungo "Acubi" ize-neko **Kontsumitzaileen elkarteak** bere zerbitzuak Beran ere eskeintzea proposatu dio Udalari. Udalak bere aldetik begi onez hartu proposamena.

□ **ASPACE** erakundeak, Agerraldean eraikitzen hasi diren urbanizazioan kokatuko du seguruenik bere egoitza berria.

□ **Altzateko** pilotalekuaren teilatua berritu asmo da epe laburrean. Horretarako, 4.633.000 pezetatako dirulaguntza emanen dio Nafar Gobernuak Berako Udalari.

LAINO
ABENDUAN
 %30KO DESKUINTOAK
 San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

BOTXO
ostatua
 Tfnoa.: 63 00 52
 Zalainauzoa, BERA

BORTZIRI
 ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

OKANE
Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...
 Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
 * Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu
Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

LESAKA

Aldaketak aurtengo Olentzero eta Jaiotza lehiaketetan

Arratsaldeko 4etan egingen dira eta karriketan barrena ibiltzeko modua puntuatuko da

AITOR AROZENA

Aintzineko era berreskuratuko omen dute aurten Olentzero eta jaiotza lehiaketek, eguerdian izan ordez arratsaldeko 4etan burutuz. Plazako emanaldian, jantzia, olentzeroa eta kantaz gain, taldeak goizean baserri eta karriketan barrena nola dabiltzan ere kontutan hartuko omen da puntuazioa ematerakoan, hori begiratzuz bi pertsona ibiliko direlarik. Taldetan olentzeroz jantzitako sei pertsona izan beharko dute guttienez. Urtero bezala hiru mailetan banatuko dira olentzeroak eta sariak orain arte baino garrantzitsuagoak izanen dira. Nagusien mailan errate baterako, mila duro emanen zaio txapeldunari, eta bandarekin ibili ondoren olentzeroa behar bezala entregatuta bertze mila duro. Jaiotza lehiaketako sariak ere hobetu dira.



Santiago Irigoien txistulariari hillaren 13an egindako omenaldian musikariez gain herri guztiak hartu zuen parte. Goizeko meza, musika eta dantza ekitaldiak, opari banaketa eta omenaldiaren ondoren, 400 pertsona inguru bildu ziren frontoiko bazkari herrikoian eta Santiagok jotako "Biligarrua" k jendearen txalorik beroenak jaso zituen.



Abesbatzak hamargarren urteurrena ospatu zuen hilaren 20ean. 1982ko Santa Zezilia egunean egin zuten lehen saioa elizan.

- **Abesbatzak** hamargarren urteurrena ospatu zuen hilaren 20ean, koralarren partaide diren eta izan diren guztiekin. Hamar urteotan hiru zuzendari izan dituzte: Guillermo Agara, Isabel Lacar eta M^a Sol Perez.
- **Azienda** jabeek 1993ko katastroa berritzeko hiltzetaren 15a baino lehenago agertu beharko dute Herriko Etxean.

ONIN Agentzia

Albistur 53. ☎ 637359 - LESAKA

- Aseguruak eta kontabilitatea
- Errenta eta IVA deklarazioak
- Eskrituren likidazioa
- Edozein aferetarako ofizina
- Zunzarren-en kolaboratzaileak

IRUBIDE

OSTATUA
ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

XATURETXEA

FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA



Loradenda, bitxikeriak,
opariak, eskulangintza

Bitiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bitiria 67 - Tfnoa:637264

Baserrien izenak seinaleztatzeko proiektua aintzinera doaie

Euskara Batzordearen proposamena ongi iruditu zaio Udalari

PELLO APEZETXEA

Euskara Batzordearen proposamenez, Udalari ongi iduritu zaio baserrien izenak bide bazterretan paratzea. Hilabete frango bada Etxalarren hori proposatu zela, eta zer kostatzen ahal zen ikusi ere bai. Bortziriak batera egitea hobe zelakoan luzatu egin zen, momentuz ez baitzen herri guzietako baserri izenen zerrenda prestatua. Orain bai, badago, Gobernuak egina, eta lehenbait-lehen jartzea nahi da.

Eskola zaharrak nola erabili

Eskola zaharretan ekitaldi frango egiten da astean barrena. Horrek or-



Larraburua elkarteak bizi-bizi dabil gauza ugari antolatuz: bazkariak, podologo zerbitzua, mus txapelketa, igandetako ostatu zerbitzua... Argazkian ageri zaigun batzordea da gauza horien bultzatzailea

dutegia antolatzea eskatzen du eta lekuaren erabilpenak, bertze alde, gastua suposatzen duenez, neguan bereziki, erabiltzaileek or-

duko 100 pezeta ordaindu beharko dute, argia, kale-fakzioa, garbitasuna eta konponketa arrunten gastuei aintzin egiteko.

Usoak berandu hasi eta berandu bukatu

Euria izan da nagusi udazken honetan. Ondorioz, ehizarako eguraldi kaxkarra. Urriak erdia irauli eta gero izan zen lehenbiziko uso pasaldi polita, 17an xeheki, baita ehiza ere, egun horretan 25en bat dozena sareetan sartu bait ziren. Hurrengo etorrera nabarmena urriaren azkenak ekarri zuen, hemezortzi dozena inguru sareetara sartzea lortuz. Denetara, 107 dozena izan da aurtengo sarezko ehizaren historia. Tartean, zain egondako ordu luzeak, haize hotz eta bustialdiak, bisitarien joan etorriak...

BEKO ERROTA
Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

XABIER Ileapaindegia
Egunero Irekia
Tfnoa: 637034 - LESAKA

ARRANO

OSTATUA
Legarra - LESAKA

TXOKOA
OSTATU-JATETXEA

☛ *Urte Zaharreko Afarirako mahai erreserbak*
630286 telefonoan

IRAGARKIHAU
5.200 ETXETAN
SARTUDA
ZUREA ERESARTUKODA
PUBLIZITATERAKO
Itipi-Itapa ERABILIZGERO

Eguberriak Kultur Egunekin osatuko dira

Omenaldia eskeiniko zaio Nieves Matxikoteri

OSKAR TXOPERENA

Bada zer entzun eta zer ikusi Igantzin Eguberri inguruan. Abendutik 24tik 27ra izanen dira Kultur Egunak Euskara Batzordeak eta Biltoki elkarteak antolatuturik. Hauxe duzue egitaraua, joan nahi duzuenentzat: 24ean olentzeroa; 24tik 27ra argazki zaharren erakusketa Biltoki elkartearen. 26ean arratsaldeko 5etan Aterpeko sukaldariaren erakustaldia leku berean eta 9etan abesbatzaren saioa elizan (polifonia, kantu herrikoiak eta eguberri kantak). 27an, 12etan Mendi-bizikletari buruzko proiektzioa eta hitzaldia, Iñaki Ezeizak eskeinia eta arratsaldeko 6etan Bortzirietako bertso eskolako ikasleen bertso saioa.

Ez dago erran beharrik jendearen parte hartzeak



Udazken honetan hiru edo laugarren aldia da horrela ibiltzen garela

OSKAR



Ongi merezitako omenaldia eskeiniko diote Nieves Matxikoteri abenduaren 26ean, abesbatzaren eskutik. Hogeita-bortz urte daramazki elizako organoa jotzen. Ez dago gaizki.

duen garrantzia horrelako egunetan. Beraz, badakizue, denak etxetik kanpora.

Mus eta partxis txapelketak Biltokian

Hasiak dira aurtengo partxis eta mus txapelketak Biltoki elkartearen. Jokatzan ari diren bikoteak berriz, hamairu partxisean eta hamasei musean dira. Beti bezala mus partidak larunbat arratsetan eta par-

txisekoak berriz, igande arratsaldetan jokatzan dire. Hilbeltzaren 30erako espero dute finala jokatzera.

Biltokitik erran zaigunez ere, arazo haundiak omen dituzte azken bolada honetan edarien kontuekin, zenbaitzuk edan eta ez ordaindu egiten omen dutelako.

Dirudienez, leku guzietan daude bertzeen kontura bizi nahi dutenak.

Eskola kontseiluko gurasoak aukeratuak

Eulogio Mitxelena eta Pili Iturbide izanen dira eskola kontseiluan parte hartuko duten gurasoak. Abenduaren 10ean izan ziren aukeratuak eta irakasle eta udaleko ordezkariekin osatuko dute kontseilua.

J. M. ANDUEZA IRIARTE Instalazio elektrikoak

Sua itzaltzeko tresna guztiak

- Mangerak
- Extintoreak
- Ateak: Rf-30, Rf-60, Rf-90. etab...

Alarmak: Suarenak, lapurretarenak...


Askain Karrika 12 ☎ 630854 - BERA

SAROBÉ okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

GOZOTEGI - JARONE



Itzea 3, 630786 - BERA

IRAGARKI HAU 5.300 ETXETAN SARTUDA

ZUREA ERESARTUKODA
PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZGERO

Kultur ekintzetarako dirulaguntza jaso du zahar elkarteak

Gimnasia klaseak antolatu dituzte dagoeneko «Zahar-Txoko»ko kideek

MIRARI eta MARTA

Nafarroako Gobenuak Zahar Txoko elkarteari 397.000 pezetako dirulaguntza eman dio. Kultur ekintzetan erabiliko dute dirua eta dagoeneko gimnasia klaseak antolatu dituzte bertako sozioentzat eta abenduaren 15ean bukatu zen apuntatzeko epea. Hala ere, erran digute norbaitek bertan apuntatu nahi badu, aukera izanen duela nahiz sozioa ez izan eta denbora pasatua izan. Klaseak asteazkenetan 11etatik 12,30etara izanen dira. Honen gastuak, erdia parte hartzen dutenen artean eta gainontzekoa, Zahar-Txoko eta Arkupeak



elkartearen artean ordainduko da.

Honetaz gain, zenbait hitzaldi, bertso afari eta ibilaldi antolatuko dituzte, "callista" (kalloak kentzen dituen medikua) ekartzeko

asmoa ere ba omen dute.

Antzerkia

Abenduaren 27an eskolako haurren antzerki emanaldiak izanen dira. Ondotik, berriz, bertako bi zarezaren zozketa.

Lapurretak

Lapurrak ere agertu zaizkigu azken aldi honetan herrian. Martinborda baserritik diru kopuru dexentea eraman zuten, baita ondoko astean Pili - Marce ileapaindegitik. Auskalo hurrengoa nori tokatuko zaion. Kontuz ibili.


Landondoko kanalea itxi

Landondoko kanala itxi dute beharrezko bi arau ez betetzeagatik. Batetik, amarraiak presatik erre-kara eta alderantziz pasatzeko beharrezkoa den biga falta da eta bertzalde, errekatik ura behar baino gehiago hartzen omen duelako.

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63



ERAKUSKETA:
BEREAU ETXEA
LESACA NAFARROA
Telf: (948) 637266

BORTZIRI

«UNSION ANAIK»

SUKALDERAKO ALTZARIAK

**MANOLO
TABERNA**

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,
Ardoak, Likorrak,
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA

LEGASA

AHVk fabrikako pintura lerroaren
produkzioa urteko 135.000 tonatara igo du

LEGASA

AHV enpresak (Laminaciones) herrian duen fabrikari bertze pintura lerro bat paratu dio, honela gaur egun produzitzen diren urteko 90.000 Toneladatik 135.000ra pasatuz.

Berrikuntza honek 1.300 milioi pezetako gastua suposatu du, baina horrela, Europan dagoen eskariari egokitzen omen da Laminaciones-en produkzioa. Berrikuntza hauekin, txapa prozesatzeko belozidadea



1.300 milioi pezetatako inbertsioa suposatu du fabrikako linea berriak

azkartzen da (minutuko 60 metro izan beharrean 90) eta

ingurugiro aldetik ere abantailak ekarriko ditu.

Legasako berriak
hemendik aintzinerat
ttipi-ttapan

DAVID MARTIRENA

Aspalditik genbilen Legasako gazteak gure herria ere *ttipi-ttapan* agertu behar zelako asmoarekin. Badakigu, ordea, horrelako herri ttiketian askotan, gehiengotan beharbada, ez dela deus garrantzitsurik gertatzen. Hala ere zin egiten dugu datorren aletik aintzina Santurtziko sardiñak bezain frexku izanen duzuela Legasako berri orri hauetan.

AMAIUR

10. URTEURRENA

Tfnoa.: (948) 45 04 00

DONEZTEBE

5 urtetako garantia sukaldetan
AENOREk homologatua



- VEGASA Sukaldeak
- Bainuak
- Mahaiak - aulkiak
- Elektrogailuak:
 - Miele
 - NEFF
 - AEG
 - Fagor

Bi kintetako lagunak bildu ziren abenduaren 8an

Adinekoak izanagatik, umore ona ez dutela galdu erakutsi zuten

IOSUNE eta IXABEL

Abenduaren 8an bi kinta ezberdinetako lagunak juntatu ziren. Alde batetik 1926, 27, 28 eta 29koak eta bertzetik 1907koak. Goizeko 11etan meza izan zuten kinta hoietako hildakoen faboretan. Ondoren, Elortxurin bazkaria izan zuten 1926, 27, 28 eta 29an jaiotakoak. Don Basilio apeza ere hauen kintakoa da. Bazkalondoan kantu ugari abestu omen zituzten, Ramontxo akordolaria ere han baitzuten laguntzaile. Alberto Arretxea eta Tiburtzio Martiarena aritu ziren jotake antolaketa lanetan. Zaharrenak, berriz,



Sunbilla «herri ez militarra» izendatuta, ezin izan dira bertan maniobra eta kanpamendu militarrik egin

Herriko Etxean izan zuten bazkaria. 1907an jaiotakoak bortz edo sei lagun bakarrik gelditzen dira bizirik, baina umore ederra dute oraindik.

Gimnasia ikastaroa

Astean bi aldiz, asteartean eta ortzegunetan 3,30etatik 4,30etara biltzen dire gimnasia ikastarokoak. 20 urtetik 70 urte bitarteko

hogeitamasei bat lagun elkartzen dire eta Mikel Ibarrola doneztebetarra dute irakaslea.

Arrazismoaren kontra

Arrazismoaren kontra HBK aurkeztutako mozioa ahobatez onartu zuen Udalak. Bertan, «Extranjeria Legea» aldatzea eskatzen da, «*etorkinei mesede egin beharrean kalte egiten bait die*».

Bertzalde, intsumisioaren alde agertu zen Udala pleno berean, Sunbilla «herri ez militarra» izendatuz. HBK alde botatu zuen eta EA abstenitu, aintzinetik gisa bereko mozioa onartua dagoela erranez.

Amaya

Lurrindenda
Oparidenda
Apaindegia

EGUBERRI ZORIONTSUA
eta URTEBERRI OPAROA
OPA DIZUEGU

- ☞ **Lurrindenda:** Izugarritzko promozioak lurrin ezberdinetan, eta gainera, lurrin bakoitzak bere oparia dauka
 - Carolina Herrera (*lepoko pañueloa*)
 - «Y» de Yves Saint Laurent (*nezeserra*)
 - Christian Dior-en Poison-ekin (*nezeserra*)
 - Paco Rabanne (*Moet Chandon likorra + bi kopa*)
 - Quorun (*nezeserra + irratigailua*)
 - ...
- ☞ **Opariak:** Opari berezi bat bilatzen baduzu... Jazteko eta bidaiatzeko boltsoak, zapiak, karterak, Christian Dior eta Nina Ricci euritakoak, Camel Trophi erloju eta motxilak
- ☞ **Apaindegia:** Norbera makilatzeako ikastaroak: Depilazioa, aurpegi eta gorputzerako tratamenduak, solarium-a...

Ameztia karrika z/g – Tfnoa 450163 – DONEZTEBE

DONEZTEBE

Santa Luzia eguna, berriz ere egun haundia

Herriko historia ezagutzera hainbat jende agertu zen bezperako hitzaldira

TXEMA ALDABE

Santa Luzia egunak, aspaldian Donezteben izan zuen garrantzia berreskuratze bidean dagoela dirudi. Aurtengoan, gainera, Antso Jakituna erregearen eskutik Leringo bailararen foruak eskuratu zitueneko 800. urteurrena betetzen zuen herriak. Orduko gorabeherak gogoratuz Peio Montano eta Xabier Ezkietak hitzaldia eman zuten bezperan jendez gainezka zegoen Herriko Etxean. Zenbat pertsona bizi zen zehazterik ez badago ere, 36 su omen zeuden garai hartan eta ogia, zerriak eta sagardoa ziren jan eta edangai nagusiak.

Biharamonean, elizan ez zen lekurik izan mezara etorritako jende guztia sartzeko. Elizatarien, berriz, artisauen erakusketa eta Sorozabal, Silveira, Telleria eta Mendizabal bertsolariak emandako bertso saioa antolatu zuen Malerrekako Euskara zerbitzuak. Arratsaldean ere, dantzaldia izan zen elizatarien.



Peio Montano eta Xabier Ezkietak hitzaldi interesgarria eman zuten



Bertsolariak ere saio polita egin zuten Santa Luzia egunean

Herri Kirol errekorrak ezartzeko asmoa

Abenduaren 27an Herri Kirol Federazioak antolatuta jaialdi polita ikusteko aukera izanen dugu. Alde batetik, Iñaki Perurenak 206 kiloko harri boro-

bilarekin saiatuko da eta Mikel Saralegik bere errekorra gainditu nahiko du 306 kilo altxatuz. Bertze kirolari batzuk ere errekorrak hobetu nahiko dituzte.

W ttipi-flash

□ **Jubilatuek** bazkaria izanen dute hilaren 29an urtea agurtzeko, Santamaria eta Beolan.

□ **200.000** pezetako dirulaguntza eman dio Udalak *ttipi-ttapa* aldizkariari. Halere, zegokion herena bertzerik ez da kopuru hau.

□ **Donamariako** Udalarik Trosketa edo Errotazar iturritik ura hartzeagatik, 1992ari dagokion 87.498 pezeta ordainduko dizkio Herriko Etxeak.

□ **Zonaldeko** mataderoa egin bitartean herrikoa erabiltzeko baimena eskatu dio Udalak Nafarroako gobernuko Osasun kontseilariari.

□ **Musika** eskolarako Eduardo Arbuñes irakaslea kontratatu du berriro Udalak, kontratuekin zenbait gorabehera izan ondoren.

□ **Kioskoa** zabaldu eta Leku-Eder zineman eszenario bat paratzea 488.000 pezetetan (IVA kanpo) egingen du Agustin San Migelek.



SANTAMARIA

Jatetxea

Urte zaharrekofaria prezio herrikoietan

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



ARROPA ETA OPARIDENDA

Tfnoa: 451540

Mercaderes 9

DONEZTEBE

Eskola kontseilua aukeratua izan zen

Trini Erasun eta Kontxi Etxepeteleku izanen dira bertan

IBAN ISASI

Aurten ere eta botu batetako aldean Trini Erasun eta Kontxi Etxepeteleku irabazi dute Kontseilu eskolarreko partaide izateko hauteskundetan. Rosa Aiestaran eta Joxe Mari Mindegia dira botu batetako aldeaz kanpoan gelditu direnak.

Arangurengo zabortegia

Arangurengo zabortegi

edo basureroari buruz, "Zabortegiaren aurkako koordinakundeak" Udalean jarritako mozioa onartu egin zen. EAko alkateak eta talde bereko bi zinegotzi abstenitu egin ziren, talde bereko zinegotzi batek baietza eman zion eta HBko zinegotziak ere hala egin zuen.

☐ Behin betikoz onartuak izan dira Arau subsidiarioak Iturengo Udalean.



ARTXIBOA

ZUBIETA

Egur loteak banatzea erabaki zuen Udalak

Hauek eskatzeko baldintza gisa auzolanak egitea jarri du

JUAINAS

Ohitura zaharrak, onak direnean, mantendu behar direla eta, egur loteak banatzea erabaki zuen, Udalak, momentuz eskariendako zerrendak iriki behar duelarik. Gero, zenbat etxe apuntatu diren ikusita, banatuko omen du. Nahitaezko baldintza gisa auzolanak egitea jarri du, berriro elkar lotu nahian.

Errege bezperan bertso afaria

Tradizioa bihurtzen ari dena aurten ere egingen da, Errege bezperako "Bertsolari" afaria, alegia, urte



Abenduaren 15ean hasi zen pistetako konponketaren lehen fasea

ARTXIBOA

batzu direla Euskara Zerbitzutik bulkatu zen ekin-tza zeharo finkatu baita. Estalpin egingen da, noski.

Sebastian Lizasok eta Millan Telleriak botako dituzte bertsoak, afari ondoren, trikitilariak lagunduko

dituzte eta, dudarik gabe, giroa egonen da. Animo!

Eta bukatzeko, aurrera begira egin behar zen lan garrantzitsuenetariko bati hasiera eman diote, dagoeneko, bart (abendua 15) plaza "palaz" eta "exkabadoraz" bete baitzen. Pistetako konponketaren lehen fasea omen da, printzipalak konponduko pentsatua dagoena, hain zuzen. Gerokoak, gero, dirua ailegatzten denean... akaso... urte batzu pasata... Gobernuak, inoiz, iturria berriro irekitzen badu... Alkate jaunak esaten duena: Hauteskundetako bezperetan!



Amerzia Jatetxea

*Urdai-azpiko iberikoa
Marisko entsalada hotza*

*Antzara patka
Salda Jerez orara*

*●●●●●
Izokia itas fruituekin
Solomilloa guarnizicorakin*

*●●●●●
Turroi ezberdinak, kafeak eta lihorrak*

ETXEKO ARDOA eta CODORNIU CAVA
Hamabietan mahatsak eta
sorpresa zakututxoa oparituko da

Mahai erreserbak 28a baino lehen
PERTSONAKO PREZIOA 4.200.- Pzta.

Tfnoa: 45 00 28 - DONEZTEBE

ATERPE

jatetxea



Afalondoko giroa alaitzeko,
Gregorio Mitxelena izanen dugu bere
akordeoiarekin
Hamabietan, mahatsak eta ondotik...
saski bat zozketatuko da

Tfnoa: 63 41 79

ARANTZA

koxkonta

*Marisko koktela, cava koktelarekin lagunduta
Hegazti salda*

Txangurro betea labean egina

*●●●●●
Solomilloa eta hiru saltsa aukeran:
piperrautsana, roquefortena eta mahatsena*

*●●●●●
Turroi biscuitez betetako tejak
txokolate beroarekin*

*●●●●●
Era guztietako Turroiak eta
txanpaina mahatsekin*

*●●●●●
Kafea eta kopa, ardoa eta ogia*

PERTSONAKO PREZIOA 4.850.- Pzta.

Erreserbak egiteko deitu

Tfnoak: 627519 /627503 - LESAKA

ZALAIN JATETXEA

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06

BERA

Menuak aukeran



KATTU

Jatetxea

Matxinbeltzenea - LESAKA
Erreserbak 627573 Tfnoan

Marisko Koktela



Kardabera nafar erara



Legatza almejekin



Kapoi errea gaztainekin



Piku, orejon eta aranen konpota

Armagnac erara

Prezioa: 4.500 pezeta.

MENU ALTERNATIBOAK ERE EGIN
DAITEZKE

TXOKO

jatetxea

Entremes hotzak:

*Arrain pastela, urdai-azpikoa,
esparragoak eta langostinoak*

Entremes beroak:


Langostinoak plantxan eta almejak



Salda



Bixigua



Solomiloa



Eguberrietako postrea

Kafea, likorra eta cava



PERTSONAKO PREZIOA 3.600.- Pzta.

Deitu erreserbak egiteko

Tfnoa: 45 04 91 - ITUREN

Hotel Mugaire

Urte zahar afaria

Entremes hotzak:

Jabugo "rollitoak" foie moussarekin

Marisko salpikoa

Entremes Beroak:

Txangurroa labean

"Club Ranero" bakailua



Hegazti salda

Zapoa sagardo erara gamba eta almejekin

Solomilloa hezur-muinakin ardo beltz erara



Fruitu eta urren biscuita txokolate saltsakin

Turroiak eta kafea



Mahatsak eta opari zakutoxoa



Cotillon

Goizalderarte dantzaldia

"GELATXO"

Taldearekin

PLAZA LIMITATUAK, GORDE MAHAIA

PREZIOA: 5.500 PZTA (IVA BARNE)

TENOA: 59 20 50

OIEREGI - BERTIZARANA



LAN 5. URTEKO ARDO BELTZA, BEAMONTE ARDO GORRIA
CODORNIU BRUT NATURE CAVA, CARLOS III BRANDYA, ETA WHISKY KREMA

URTE ZAHARREKO AFARIAK



GOIZUETA

Ahuntz eta behien aurkako batidak Artikutzan

Halaxe jakinerazi dio Donostiako Udalak Goizuetakoari

ESTEBAN AROZENA

Donostiako Udalak Goizuetakoari jakinerazi dioenez, Artikutzako para-jeetan alhatutako ahuntzak eta behiak arrisku bizian daude, bi azienda mota hauen kontrako batidak emateko prest baitaude donostiarrak. Honen arabera, Herriko Etxeak bando bat kaleratu du interesatu guztiak jakinarean gainean egon daitezen.

Pilotaren inguruko berriak sortu dira berriro herrian eta ohi den bezala onak gainera. Herrialde bakoitzean "Interpueblos" txa-



Olentzeroaren ohiturari ez diote uko egingo goizuetarrek eta aurten ere kaleratuko da mordoazken aste hauetan egindako entsaloak fruiturik ematen baldin badute behintzat.

pelketa irabazi zuten taldeen arteko torneoa jokatzeko ari da Zumarragan, eta dagoe-

neko esan dezakegu goizuetarek finalerako txartela lortu dutela Ortuellari fina-

lerdia irabazitakoan. egitaraua behar bezela betetzen baldin bada, datorren hilaren 2an jokatu da finala gaueko 10etatik aurrera, Zumarragan.

□ **Hilbeltzaren 2an** beste ekintza bat ere burutuko da Goizuetan, hain zuzen ere Egan taldearen emanaldia. Esan behar da, Gazte Asanblada dela dantzaldi honen antolatzailea.

□ **Eneritz eta Amaia** bikoteak laugarren postua eskuratu zuten hilabete honen 13an Iruñeko Gaiarre antzokian burutu zen "Nafarroako Haur Kanta txapelketaren" finalean.

ARESO

Uraldeak kalteak sortu zituzten eskolako sotoan


JUANA MARI SAIZAR

Azkeneko uraldeak hainbat kalte sortu zituen eskolako sotoan eta arazo hauek konpontzeko Udalak irtenbide batzuk aurkitu ditu. Lehenengoa eskolako sotoa isolatu edo inpermeabilizatu eta bigarrenik errekaren zola hogeitamar zentimetro jeitsi. Inpermeabilizatzea 7 milioi pezeta kostako da eta zola jeisteak, berriz, 912.000 pezeta. Bigarren proiektua onartu egin da, eskolako parean hasi eta Otsaidako zubiraino jeitsiko da lehen aipatutako 30 zentimetro

horiek.

Uraldeak egindako kaltea milioi batekoa izan da eta irtenbideak ia 8 milioi. Nondik aterako da diru guzti hau? Udalak ahaleginak egingo ditu diru kopuru honen % 100a lortzeko, Obra Publikoetako eta Hezkuntza ministeritzetatik, baina oso zaila dago beraiek agindutakoa % 50a eta % 60a baita.

□ **Urtero** bezala zezen jatea ospatu zen Larrea elkartearen. Giro oso ona eta alaia eta 140 pertsona bildu omen ziren. Bertsolariak eta



trikitixa izan ziren festa alaitzen, urtetik urtera arrakasta haundiago izaten

duen festa honek, nahiz herriak nahiz kanpoko jendearen artean.

Fiskalak 18 hilabeteko kartzel zigorra eskatu zuten Kiko Ortiz leitzar intsumisoarentzat

JOSEBA AZPIROZ

Abenduaren 14ean, Kiko Ortiz leitzar intsumisoa Iruñean epaitu zuten soldaduskarik egin nahi ez izateagatik. Leitzatik autobusa joan zen epaiketara eta guzira 60 bat gazte bildu ziren pankarta, txaranga eta guzti. Itzulitakoan, eguerdiko hamabiak eta laurdenak aldera manifestazio bat egin zuten 35en bat gaztek.

Herrian berriz, Lanbide Eskolako ikasleek greba egin zuten Kiko eta intsumisioaren alde eta EPAko informatika kurtsokoek ez zuten klaserik eman egun horretan. Azken hauen irakaslea, Oscar, epaitu berria da.

Epaiketaren aurreko larunbatean Aurrera elkarrean intsumisioaren aldeko taldeak aparia prestatu zuten 135 gazte bilduz. Ondoren herriko plazan musika jaialdia izandu zen.

Udalak bere aldetik azaroaren 3ko batzarrean EA eta HBko zinegotziak intsumisioaren aldeko akordioa eta konpromezu pertsonala hartu zuten ("talla" gehiago ez egitea, autoinkulpazioa...). Azaroaren 27an egindakoan ez zuten epaiketara joateko autobusa alokatzeko aurreratzea eskatzen zizkieten 25.000 pezeta eman



135 gazte elkartu ziren intsumisioaren aldeko afarian Aurreran

nahi izandu, gazteak hiru hilabetetako epean itzultzeko asmoa bazuten ere.

Azkenik, alkateak, abenduaren 9ko ebazpen batez eta Madrilgo Gobernuaren ordezkariak, hartutako akordioa legez kontrakoa dela esan zuela kontutan harturik, Udalak ejertzitoarekiko harremanekin jarraitzea erabaki zuten (tallatzea hain zuzen).

□ **Aurreko** asteko astelehenean Egunkariaren trenan Leitzatik igarotzekoa zen baina arazo teknikoak eta administratiboak zirela eta ez zen posible izan. Horren ordez *Antzerti* taldeko partaideek antzerki lan bat eskeini zuten eskolan umeentzat. Horretaz gain herriko toki desberdinetan 300 bat Egunkari banatu ziren.



□ **Pilpilean** dago 18 lagunek jokatzeko ari diren Leitzako IV. Xake txapelketa. Aurrerak antolatua eta Pablo Arozenaren ardurapean, larunbatetan jokatzeko dute elkarrean. Lehendabiziko bi txapelketak Jose Luis Mugikak irabazi zituen eta hirugarrena Felipe Bernabeuk.

□ **Leitzan** 306 behor eta zaldi, 315 haragitaro behi, 263 esne behi eta 6.397 ardi dauzkagu azken zentsoaren arabera. Baita 18 asto ere...

□ **Haragitaro** behien-gatik dirulaguntza eskatzeko epea hilaren 15ean bukatu zen. Leitzeko Nekazal Bulegoan Leitzan, Areso, Goizueta eta Ezkurreko 94 lagunek eskatu dute 400 bat behientzat. Goizuetan dirulaguntzarik gabe gelditu dira 100 betizu saneamendua egiteko ezin harrapatu dituztelako.

Eguberrietan honako ikuskizun hauek izango ditugu: eguberri bezperan, Olentzero jeitsi zaigu menditik herrira, eta nola ez ba, Kordobango atarian izango gaitu denak zai, berarekin kalejiran ibiltzeko. Egunean zehar gainera izango ziren gure balkoietan hainbat olentzero. Eskolako haurren festa 22an izandu zen. Urtarrilaren 4ean, gaueko 12etan, Erregen etorrera adierazteko kulunke eta zintzarri jotzea. Bostean iluntzean berriz, Erregeak ailegatuko dira eta Kabalgata izango da.

Ardi esnearen kanpaina hasia da dagoeneko

Konpetentzia latza izanen dute datorren urtetik aintzineran bertako nekazariak

JOSEBA IGARABIDE

Eguberriak heldu dira eta nahiz krisi egoeran egon, jendeak 'etxea leihotik botatzen du'. Mugimendu gehiago sumatzen da dendetan. Bertze aldetik, orokorki krisia nabari dela aipatzen dute.

Ardi esnearen kanpaina...

hasia da eta konpetentzia latza izanen dute bertako artzaiek atzerriko esnearekin. Bulgariatik litroko 29 pezetetan ekarri omen dezakete. «Denominacion de origen» delakoa, normalki industriaren eskuetan dago eta nahi dutena egiten dute. Aintzineko urteetan zailtasun haundiak izan baditu bertako bildotsak komertzializatzeko, batez ere, Frantzia eta Britainia Handiko inportazioengatik, hemendik aintzinerara esneak.

Hemengo artzai batek dioenez, "hemen lortzen diren produktuei zailtasun haundiak jartzen dizkiote sanidade aldetik komertzializatzeko". Bere buruari egiten dion galdera, "ea industri haundiak horrelako zail-



Uholdeek ia lurrik gabe uzten ari gaituzte. Aunitz izan da hilaren 8an urak eramandako lurra, sekulako euriteak izan bait ziren, pistak erabat kaltetuz.



Xorroxin Irratiko langile eta korrespontsalak elkar ezagutzeko bazkaria izan zuten hilaren 8an Erratzuko Etxelebertzeko Txokoan. Solasa, irria, dantza eta kantarako denbora izan zuten.

tasunak izaten dituzten lehengaiarekin produzterakoan". Administrazioaren aldetik

laguntza gehiago eskatzen zuten osasun baldintzak bertetzeko.

W ttipi-flash

□ Orain dela urte batzuk Elizondon hasi bazen, gaur egun hainbat herritan zabaltzen ari da Olentze-roaren ohitura. Dena den ez zegoen ohitura haundiegirik hemen egun hau ospatzeko.

□ Alkate juradoen aukeraketa egina izanen da ale hau argitaratu orduko. Halere, figura honek gero eta garrantzi tikiagoa du eta ia ia «dekorazio» hutsa dela erran daiteke.

□ Eskola profesionalean burutu beharreko kurtsilloetan izena emateko epea, urtarrilaren 15ean bukatuko da, horretarako 580012 telefonora deituz (Tere). Kurtsoak, ordenagailuz lagundutako diseinua, soldadura elketrikoa eta industri elektrizitatea izanen dira (50 ikastordu bakoitzak).

Aurreko zenbakiko elkarriketan Santiago Ustarrozez hitzetan jartzen genuen "Astean pare bat ordurekin ezin da aintzinerako aferak behar den bezala moldatu" esaldian "astean pare bat egunekin" jarri behar zuten. Barkamenak.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Eguberriak erostetengatik opari batendako txartelak

KASINO OSTATUA

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO

Urte berri, alkate berri

Joan den igandean izan ziren botazioak

PABLO MENDIBURU

Egun berezi hauetan, gure herrietan ohitura zaharrik jarraitzen ditugu. Horrela, eguberri bezperan Anitz, Berroeta eta Almandotzen Olentzeroa ospatzen dute. Zigan berriz, haurrak etxez etxe ibiltzen dira kantari, turroia eta goxokiak hartzen dituztelarik. Urte berri eta errege egunean, berriz, etxetan zehar ibiltzen dira berrito, kantu berezi batzu abestuz.

Alkate berriak


Abenduaren 20ean izan ziren herrietako alkate-juraduen hautaketak. Hau idazterakoan inolako daturik ez dugunez, hurrengo alean agertuko dira emaitzak eta

alkate berrien izenak. Esan behar, beren kargua urtarri-laren 6ean hartuko dutela.


☐ **Azken** alean aipatzen genituen lanak egiteko (Zigako Auzkue auzoan eta Berroetako plazan zenbait moldaketa) Baztango udalak Berroetako eta Zigako alkateei 72.500 pezeta eta 200.000 pezetako laguntza eman die.

☐ **Arkupeak** antolaturik hemengo jubilatuek urte bukaerako besta ospatuko dute abenduaren 29an. Meza eta bazkaria Almandotzen izanen dute eta arratsalde dantzaldia Doneztebeko Bordatxon.

☐ **Almandozko** Eva Lertxundiri Trafikokoek domina bat eman diote urte



Ezkerretik eskuinera Jabier Sarratea Zigakoa eta Martin Gamio Anizkoa, bi urte hauetan alkate izan direnak. Behean, Kiko Gartxitorena Berroetako Alkatea.



honetan bere etxe ondoan (Marin zubian) istripua izan dutenei laguntzeagatik.



GESPAM, S.L.

Mendinueta 12 • ELIZONDO
Tfnoa eta Faxe: 45 21 92

☛ **GESTORIA ADMINISTRATIBOA**

☛ **ASEGUROAK:**

GAN – AEGON – AGF

☛ **KONTSEJUAUAK:**

- Fiskalak
- Laboralak
- Kontuetan

Zerbitzu integrala enpresarientzat
Deitu konpromisorik gabe!!



«ZALDUBI» SUKALDE MOBLEAK

Altzari fabrikazioa eta
muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 58 05 62
IRURITA - BAZTAN

ZUGARRAMURDI

Zeramika eskulanean erakusketa Lekuberria etxean

Bertzalde, Urte Zaharreko afaririk ez dute emanen bertako jatetxeetan

KORO eta MARGARI

Abenduaren hasieran edeki zen "Lekuberria" etxean zeramikaz eginiko irudien erakusketa bat (salgai diren araberan). Irudi hauen egileak Joseba eta Agurtzane dire, "Tasta" lan izena dutelarik, eta figura hauek batez ere akelarre eszenak, sorgin eta deabruen itxurak dituzte.

Interesatuak daudenak errex dute toki hau bilatzeko: lezera doaien bideko azkeneko etxea, lezeen ondo-ondoan, beraz toki aproposena.

Urte - zahar afaririk ez

Aurten herrian "Urte-zahar" ospakizun eskasa



Kanporat aldegin beharko du herriko jendeak Urte zahar afaria ospatzeko
ARTXIBOA

izanen da, ez baita jatetxe bat ere afaririk antolatzen duenik. Bertze urteetan "Errotaxarren", "Erreku-txean" eta "Armuian" egiten baziren ere, eguberri hauetan jendeak bertze moduz

antolatu behar izan du, etxe partikularretan eginez (gazte talde batek "Gandeseanean" egingen dute) edo bertzenaz herritik kanpo ateraz (bertze gazte talde bat Lesakara doa).

Urtero jatetxe guztiak betetzen ziren eta herriko ostatuak gau guztia edekiak egoten ziren umore ederrean, beraz, zein explikazio duen kasu hunek ez da kigu.

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

KIWI BAZTAN, S. A.
FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN ZUZENKO SALMENTA

MINDEGIA eta BULEGOAK:

Sutegia Etxea
31795 LEKAROTZ
= (948) 58 11 01
Fax-a: (948) 58 11 01




FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO Erreportai on bat

ELIZONDO = 580491
DONEZTEBE = 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN DITUGU "FUJI" kalitatearekin.



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepede nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

Lezeak erosiko ditu Udalak Diputazioaren laguntzarekin

Dantxarineako muga, bertzalde, ofizialki ireki zen

ALIZIA OLAIZOLA

Nafarroako Gobernuak 25,1 milioietako dirulaguntza eman du Urdazubiko udalak lezeak erosteko (18 milioi) eta herrian turistak biltzeko lekua egiteko (7,1 milioi).

Nafarroako Gobernuak Turismo sailaren ustez, "neurri hau garrantzi handikoa da, errekurtsio natural hau probexteko eta erabelean, eraikuntza berria eginenez turismo eskeintza hobetzeko".

□ Urdazubi eta Zugarramurdiko 13 haur autobusean gaten dira Sarako eskolarat. Datorren urtean, 12 urteak betez gero, mugaz bi aldetan ikastea ofiziala izanen da.



Zerri puxkak analizatzeko sasoina da

□ Manuela Azkarraga izanen da eskola eta kontsultaren garbiketaren arduraduna, 252.000 pezetaren truk. Lehenbiziko subastan hiru proposamen izan ziren eta Manuela eta Andresa Elizetxek dirutza berdina

eskatu zutenez bertze subasta egin behar izan zen.

Etixerako hildako zerrien azterketa

Azaroaren lehenetik martxoaren 17a arte egingen da. Aztertzeke diren zerri puxkak biltzeko ordutegia;

8etatik 11etara, astelehene-tik ortzirala artio Elizondoko Osasun zentroan eta zerri hiltze egunak astelehene-tik larunbatera bitartean. Azterketa egiteko zerri puxkak entrekula (diafragma giharren zutabea), bigarrena masaila (matel giharrak), hirugarrena saiheitsartekoa (saihsen arteko giharrak). Zerri puxkekin batera, eraman beharreko datuak: jabea, helbidea, telefonoa eta aberearen adina.

□ Abenduaren 13an Santa Luzia josleen eguna izan zen. Jantzigintza ikastarorat joaten direnak Anastasi irakaslearekin bazkari bat egin zuten Koxka jatetxean egun hori ospatzeko.

ERRATZU OKINDEGIA

zure eguneroko ogia

453168 - ERRATZU



ARMUA Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI

NARBARTEKO HERRIKO OSTATUA

MENUAK eta KARTA

San Andres 1 • NARBARTE


Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barranean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanzazue Inurritako telefono honara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.



Santiago 71, = 580166 - ELIZONDO



Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure koloretako argazkiak
ORDU BATEZ ERREBELATUAK
ditugu

SARA

Kirol hezlaria hartu du bere gain Herriko Etxeak

Pascal Lagoutte jauna Ospitaleko eta kirol guneetako zaintzailea izanen da baita ere

JAQUELINE ETA MIXEL

Abendo hunen hastapenetan Sararat jin da bizitzera Pascal Lagoutte jauna; Herriko Etxeak bere xedetan deliberatu bezala Ospitaleko zaindaria izanen da. Lan hauetaz kanpo aktibitate hauen kudeatzailea izanen da: haurrek eskoletan eta elkarrekin segitzen dituzten kirolen erakasle eta Sarako kirol guneen erabilerak: piszina, kiroldegi estalia, ospitalea...

Ofizios kirol hezlari bat da eta Herriko Etxeak hartzen du bere gain. Jakin behar duzue opor denboretan segurtatzen duela permanentzia bat astelehenetan, arratsaldetan 2etarik 5ak arte: beraz eguberri, ihauteri eta bazkoko opor egunetan uzten ahalko diozkatzue zuen haurrak arratsalde pasa.

Agian ongi etorririk ho-



berena egin diozelakoan desiratzen diogu gure partetik saratar guzien izenean suerte on bat eta eginen duen guziarentzat esker mila.

Ihalarreko zabortegia

Azken denbora hauetan zabortegi hau bete beterik zegoen. Egia erran kanpo herrietarik ere asko ondar-

kin jin da.

Ingurumena zaindu behar dela eta Sarako auzapezak bere kide ordekin erabaki dute zikintegi hau saratarrentzat bakarrik izatea. Hau dela eta, gunea osoki garbitua izan da eta hertsidute. Horrekezuerran nahi ezin dela gehiago zikinik bota bainan bai behar dela hortarako eskubide bat or-

daindu. Beraz gakoaren eske joan behar da Karrikabururatu, Iratzoqui familiarengana eta hor duzue ordainduko kargaren arabera saria.

Holaxe sailkatuak dira tasak:

- Beribil edo orgatxu bakotxarentzat: 10 libera.
- Laneko beribil kokotxarentzat: 20 libera.
- Kamioi txiki bakotxarentzat: 30 libera.
- Kamioi bakoitzarentzat: 50 libera.

Berri on bat

Gure artean dugu beraz Pantxo Agerre bere familiarekin. Orroitarazi behar dugu duela hamabi urte joan zela Xabalotik Ipar Ameriketarat eta Utah estatuan finkatua da.

Hilabete batentzat jina da eta Saratar guzien izenean desiratzen diogu ongi etorri kartsu bat eta egonaldi goxo bat bere familiarekin artean.

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



**ERRO
BIDAIAK**

BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2.015

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta
BIDAI ALTERNATIBOAK

ADUANAK KALEA, 5
= 943 - 615177
= 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRUEN

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

*Michel eta Kaiten
Guxendain*

Tfnoa: 59 24 25 19
64310 SARA



ALKOHOLAREKIN ARAZORIK DAUKAZU?

AGIAN "ALKOHOLIKO ANONIMOAK"

LAGUNGUAL DIZU!!

Tfnoa: 24 24 44

EZKONTZAK

Xara Mitxelena Iparrea eta Josu Mentaberri Bergara, Irurita eta Zugarramurdikoa, azaroaren 28an.
Josef Etcheverry eta Marie Odile Elizalde, Sarakoak, abenduaren 12an.

Gregorio Astiz Iriarte eta M^a Jesus Jauregi Ansorena, Lekunberri eta Aresokoa, urriaren 24ean.
Mercedes Tirapu Ustarroz eta Alberto Pelegrin Castillo, Leitza eta Zaragozakoak, abenduaren 12an.

JAIOTZAK

Ion Migeltorena Leiza, Lesakakoa, abenduaren 2an.

Amaia Sanchez Torres, Berakoa, abenduaren 4ean.

Omaira Hernandez Mosegue, Berakoa, abenduaren 11an.

Unai Igoa Migeltorena, Berakoa, abenduaren 8an.

Iñigo Goñi Telletxea, Donamariakoa, abenduaren 10ean.

HERIOTZAK

Maria Migelena Irazabal, Igantzín, irailaren 27an, 90 urte.

Manuel Goyenetche, Saran, abenduaren 8an, 75 urte.

Nicanor Arribillaga Alzuguren, Beran, abenduaren 9an, 69 urte.

CONSERVAS MARTIKO, S.A.

Ahatetan espezializatuak



Ahate-foi

Gibel-gizena

Urdai azpikoa

Ahate-hegalak

Ahate-izterrak

Tfnoa: (948) 63 07 07

BERA

ZURE MAHAIRAKO AHATERIK HOBERENA

Jose Bikondoak 9,65 metrotan jarri zuen munduko aizkora errekorra alturan

Ikuskizuna bikaina izan arren jende gutti agertu zen Doneztebeko frontoira

Legasan sortutako Joxe Bikondoa Ibarra 46 urtetako aizkolariak abenduaren 3an Doneztebeko Bear-Zana frontoian egindako saioan munduko aizkora errekor berria ezarri zuen alturan, 45 ontzetako enborra 9,65 metrotarra ebakitzerakoan. Lan hau burutzeko hamabortz minutu t'erdi behar izan zuen Legasako aizkolariak.

Hagitz jende gutti agertu zen frontoira eta ikuskizun ederra galdu zuten, izan ere, Joxe Bikondoak bi metro baino gehiagotan gauditutu bait zuen aintzinetik Gabriel Saralegi leitzarrak zuen errekorra (7,52 metro).

Gainditzeko asmoa

Hala ere, Bikondoak bertze errekor ez ofiziala egina zuen abuztuaren 6an Baionan, enborra 9,53 metrotan moztetakoan. Azken errekor honi ofizialtasuna emateko Euskadiko Herri Kirol federazioko jueza izan zen Donezteben. Datorren udan, 10 edo 10,20 metrotan paratu nahi omen du errekor berria Joxe Bikondoak Iparraldean (Biarritz edo Donibane Lohitzunen).

Doneztebeko jaialdiari bukaera emateko Beintza-Labaiengo Jose Luis eta Marcos Telletxea anaiek irabazi zuten Antonio Jau-narena eta Juan Telletxea-ren aurkako aizkol desafioko.

Joxe Bikondoa legasarrak hamabortz minutu t'erdi behar izan zituen goraino igo, 45 ontzako enborra ebaki eta berriz ere hanka lurrean paratzeko (Arg. Joxemanuel)




Jose Bikondoa: «Goikaldean beldur haundi xamarra pasatu dut haizearengatik»

Hamasei urte zituene-tik Paris inguruan bizi bada ere, ilusio berezia zuen Jose Bikondoa Ibarra legasarrak errekor ofizial hau bere inguruan egiteko. «Hemen-goa naiz eta hemen egin nahi nuen marka berria» zioen frogaburu orduko. Hala ere, ia 10 metrotan aizkora aritzeak baditu


bere arazoak eta Bikon-doarentza ez zen dena errexia izan: «Goikaldean haizeak gogor jotzen zuen eta beldur haundi xamarra pasatu dut» zioen.

Ezkondua eta hiru se-meen aita da Joxe Bikon-doa, baina hauetako ino-rrek ez omen du aitak aiz-korarekiko duen afizioa.



HERRI KIROLAK

Joxelu Retegi izanen da Nafarroako Federazioko lehendakari berria



Igantzín sortu eta Arraiotzen bizi den Joxelu Retegi Iturbide izanen da hurrengo lau urtetan Nafarroako Herri Kirol Federazioko lehendakaria, abenduaren 4ean egindako asanbladan aukeratua izan ondoren.

Joxe Urroz lehendakariordeak Federazioa duela bi urte sortu zenetik herri kirolak izan duen garapena azpimarratu zuen (35 federatu fitxetatik gaur egungo 300era pasatu da), emakume, haur eta gazteen artean ere aritzen baita.

Bi urtetan, milioi erdiko aurrekontutik 1992rako aurreikusita dauden 15 milioi-etara pasatu da.

Kirola zabaltzea, helburu nagusia

Datozen urtetako helburu nagusien artean, herri kirolak Nafarroa guztira hedatzea eta batez ere, ema-

kume, haur eta gutxitu fisikoen artean zabaltzea daude. Eraberean, eskole-tako gimnasia ordutan bertze edozein kirol bezala Herri Kirolak erakustea helburu garrantzitsua da. Horretarako kurtsillo bereziak eskeiniko zaie irakasleei, Joxe Iturzaeta INEFeko lizentziatua eta zuzendaritza batzordeko kidea kurtsilloetako buru izanik.

Herri Kirol epaileen kolegioa ere sortu nahi da, hauek ongi prestatuak egon daitezten. Kirol honetaz informatzeko (historia, modalitateak, entrenamendu erak...) liburu bat egiteko asmoa dago eta urtean behin informazio aldizkari bat argitaratzeko intentzioa ere badago.

Bertzalde, sail ezberdinetako arduradunak ere aukeratu ziren.



Bi atletismo froga Elizondon Eguberriko kulturaldian

Mendi ibilaldiak ere egingen dira Auza eta Legatera

Baztandarren Biltzarra elkarteak eta Baztango EKBk, Balleko Udala, Nafarroako Gobenua eta Mendigoizale elkartearekin batera antolatutako eguberrietarako kulturaldiaren barnean, hainbat kultur ekitaldirekin batera bi atletismo froga izanen dira Elizondon.

Abenduaren 27an, eguerdiko 12etan Herri

Crossa izanen da eta 1993ko urtarrilaren 3an, berriz, eta ordu berean, "Milla" laisterketa izanen da. Bietan izen emateko Baztango kirol koordinatzaileari zuzendu behar zaio.

Bertze bi mendi ibilaldi ere egingen dira, Ramon, Pello eta Gerardo Plazaren omenez, 20ean Auzara eta 27an Legatera.

Hamabostaldiko jokaldiak



Nafarroako Herri Kirol Federazioa.

Lehendakari berria izendatu ondoren, kirol hau gutxitu fisiko eta psikikoei iristeko ahalegin berezia egingen du Federazioak, jende sektore guztietara ailegatzeko asmoarekin.



Jende gutti Bikondoaren munduko errekorrean

Pena da munduko errekor bat egitea eta hogeitamar pertsona inguru bertzerik ez egotea zuzenean ikusten, Joxe Bikondoa aizkolariari Donezteben gertatu zitzaion bezala.

MERKATU TTIKIA

Etxebizitzak

- **Mugairen** pisu bat salgai prezio interesgarrian. ☎ 453299.
- **Elizondon** pisu amueblatua salgai. 130 m², 4 logela, 2 bainu eta 2 miradore. ☎ 580267. Eguerdiko 1ak eta 2ak artean.
- **Lesakan** pisu bat salgai. ☎ 637034 / 226747.
- **Lesakan** pisua eta 200m²ko bajera salgai. Leku industrial. Nahi izanez gero guzia edo bertzenaz zatika. 637872.

Lana

- **22** urtetako emakume batek lan egingen luke ordu batzuk arratsaldez Doneztebe inguruan. ☎ 635150 (goizeko 10-11, Loli).
- **Tekniko**-administratibo eta EGA tituluak dauzkan neska batek lan egingo luke Leitza inguruan administratibo bezala. ☎ 610882.
- **Neska** interna behar dut Hondarribian, etxeko lanak etabihaur zaintzeko. ☎ 943-640100 (Txus).

Salerosketak

- **Lokal** bat salgai Berako San Esteban 37an. 70 m² + 40 m² sotanoan. Norbaitek denda edo bulegoa montatzeko nahiko balu, dena prest du. ☎ 630970.
- **Hogei** ardi gazte salgai. ☎ 514188.
- **Sukaldea** salgai. ☎ 637984.
- **Mendi** bizikleta Torrot markakoa salgai 6.000 pzatan. ☎ 615035.
- **Sukalde** mixtoa salgai, egoera eta modu onean. ☎ 510318.
- **Lada Niva** 4x4 kotxea salgai Erreterian, SS-AK matrikula eta 15.000 kilometro eginak. 750.000 pzatan. ☎ (943) 529456.
- **Ford Fiesta** 1400 kotxea salgai, 5 urte eta egoera onean. ☎ 637872.
- **Gasolinazko** kotxe teledirigidoa osagai guztiekien erabili gabea, 45.000 pzatan. ☎ 637872.
- **Trialko** motoa salgai, Cota 335, hagitz egoera onean. ☎ 630404 (Jesus, 7etatik aintziner).
- **Nissan Trade** 2'8 furgoneta salgai, NA-AC ma-

trikulakoa. ☎ 450333.

- **Renault** 9 GTL kotxea salgai, egoera onean. ☎ 637334.
- Hiru urtetako **ahuntza** eta hilabeteko antxumea salgai. ☎ 513286.
- **Belar** idorra balotetan salgai eta baita esne tanke bat 220 litrotakoa. ☎ 599118 (Urdazubi).
- **Kawasaki KLE-500/92** berria eta Ford Fiesta 1.6 XRZ (NA-U) arras ona salgai. Prezio interesgarria. ☎ 452048 (Elizondo).

Denetarik

- **Azaroaren 26ean, SS-2886-AL** kotxeari gertatutakoaz zerbait baldin bada-kizu, dei ezazu mesedez 630411 ☎ra.
- **Aleman** klaseak emanen nituzke. Alemaniakoa naiz. ☎ 450769 (Heike).

Harremanak

- **Zugarramurdiko** Amaiarentzat: zorionak zure 15 urtebetetzeagatik, Urdazubiko bi lagunenez partez.
- **Elizondoko** Estitxu L.rentzat zorionak zure 17 urtebetetze egunean (abendua 8), zure lagun baten partez.

• **Iruritako** Mirian E.rentzat zorionak zure urtebetetzean eta musu bero bat Urdazubiko bi lagunenez partez.

• **Leitzako** Eider Gonzalez Leitzari: zorionak zure 11. urtebetetzean eta orain bezain jator segi dezazun. Zure lagun batzuren partez.

• **Areso** Zitiko, Irune eta Jon. Zer moduz zuen urtebetetze eguna? Leitzatik zorionak opa dizkizuet biori. Zuen lagun bat.

• **Urrozko** Gauxitari: ez zaitut pakean utziko nerekin ezkondu arte. Zure momia.

• **Arantzako** Gurutzeri. Zorionak zure urtebetetze egunean eta ongi pasa. Zure familiaren partez.

• **Elizondoko** Ramon-txorentzat. Itsua al zara. Neska desesperatu baten partez.

• **Etxalarko** Beatriz eta Lesakako bere lagunei: oso ongi pasatu genuen zuekin Su ta Gar kontzertuan. Ea noiz azaltzen zareten Bordaxora. Leitza.

• **Leitzeko** bertsolari-pilotari fina den Mikeli. Zorionak urtebetetzean. M-P.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA Tfnoa:

ttipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

BORDATXO

DANTZALEKUA

DONEZTEBE

EGUBERRIETAKO
PROGRAMAZIOA



ORTZIRALA, 25

«EGUBERRI EGUNA»



«LOS CLAN» ORKESTA



LARUNBATA, 26

ANKER TALDEA

ORTZEGUNA, 31

«URTEZAHAR GAUA»



GAUBELA ORKESTA



LARUNBATA, 2
1993 URTARRILA

DISKOTEKA

ASTEAZKENA, 6 Izugarrizko Besta

ERREGE EGUNA



RENAULT Clio_{OFF.}

KOTXEAREN ZOZKETA

«EGAN TALDEA»ren AKTUAZIOA